


HAZI EGUNA, GALDU DUGUN JAI BAT

Ermuko jaixak Santixau bezperan hasi ta abuztuaren lehen domekan amaitzen zian, Hazi edo Basarritxarren Eguna deitzen jakon jaixakin.

Ferixa eguna izaten zan. Basarritxarrak urriñetik etortzen zian erosketak eitzeke, saltzeko edo Ermuan eguna pasatzeko asmuaz. Donostia, Tolosa, Beasain, Bergara,

Arratsaldian probalekuan idi-probak ta plazako edo batzokiko frontoian adari-topekak ta oillar-burrukak izaten zian. Adarixak goi maillakuak izaten zian: Donostiako Joxe Mari jatetxeak, Plaentxiko Intxaustirenak edo Eibarko Agiñazpi, Katillu edo Narruren adarixak jokatzekoa eben.

Oillar batzuk be kanpotik ekartzen zian: Getxo, Billabona, Eibar,



Oillar-burrukia (1941)

Eibar ta Naparru aldeko jentia ezautu da egun horretan Ermuan. Markiñalde, Mallabi zein Durangaldeko basarritxarrak be urreratzen zian, baiña erostera baiña gehixao saltzera etortzen zian. Sasoiko okaran, makatz ta urmadarixekin astozarak ta otzarak kargakarga einda etortzen zian, txapel ta tunika haundixekin jantzitxa.


Erdikokalia ta eliza ondoko aurkupiak dana sakuz beteta egoten zian, hasi goizetik eta gaberarte.

Bazkaltzeko orduan, herriko jantxiak gaiñezka egoten zian, atendi du ezinik horrenbeste jende.

Markiña edo Erandio aldetik. Baiña berton be oillar preparatzaille onak euezan: Antolin ta Felix Kareaga aitxa-semiak, Patxi Izagirre, Mateo Agirregomezkorta, Luis Urreta, Migel Garate... Oillarrok preparatzeko teknikia herriko pelotarixak Mexikon ezautu ta handik bueltan ekarritxako ohitxuria zan.

Gabian gero bailiak. Bandiak egun honetan amaitzen zitxuan julixuan lehenengotan, San Pelaixo egunian hasi ta domekero eskaiñitako kontzertuak.

ESTIBALITZ GONZALEZ




**BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32

MUGA



Kirolak

SEXTO CENTENARIO, 7
Teléfono 17 64 77
ERMUA

ESKA EHUNAK

- Jantziak egiten dira
- Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69

Euskara eta euskaltegia
egin biak zureak!



Gure Etxea z/g (Ongarai)
Tfnoa. (943) 17 09 25

Kirola - moda
**HOBBY SPORT
HOBBY SPORT
HOBBY SPORT**

Probaleku, 8
Tel. Fax: (943) 17 09 13 48260 **Ermua**

